

GORLIZ HERRIXKA

Leku honetan egindako indusketa arkeologikoek agerian jarri zituzten harkaitzean harrizko ziriek zulatutako arroka batzuk eta 50 zulo baino gehiago. Zulo horiek, denboraren poderioz Gorlizko elizate bihurtu zen herrixka txikiko lehen baserriekin lotutako zurezko egiturei eusteko erabili ziren zutoinen zuloekin identifikatu dira.

Teillatu beraren azpian bertan bizi den familiaren biziraupenerako beharrezkoak diren instalazioen zati handi bat hartzen duten baserriak ez bezala, duela 1.000 urte baino gehiagoko baserriak tamaina, forma eta funtzio desberdineko eraikuntzez osatuta zeuden: batzuk etxebizitza gisa erabiltzen ziren, beste batzuk biltegi gisa, beste batzuk lantegi gisa eta abar.

Egitura horiek eraldaketak jasan zituzten, denbora gutxian berri behar baitziren, material iragankorrekin eraikita baitzeuden, hala nola, egurra eta buztina. Horrela, VII eta X. mendeen artean antolaketan aldaketak gertatu ziren. Faserik zaharrenean, etxeak erdiko plazatxo baten inguruan jarri ziren, eta berrienean bide baten inguruan.

Erabilitako eraikuntza-tekniken sinpletasuna dela eta, badirudi bizilagunek berek egin zituztela, langile espezializatuen esku-hartzerik gabe eta jauntxo-egitura indartsuen zantzurik gabe.

1000. urte inguruan, eraikin horiek suntsitu egin ziren, eta haien hondakinen gainean kanposantu bat eta eliza bat eraiki ziren. Hori eraberritzen joan da eta hazten joan da urteen poderioz.